

## Agosti Xahoren bigarren mendeurrenean

Euskaltzainok, herriko agintariok, jaun-andreok, agur guztioi:

Ezin ukatuzko poza ematen dit ekitaldi honetan zuekin egoteak, noren eta Agosti Xaho zuberotar idazlearen bigarren mendeurren hau ospatzeko. Berez, gure euskaltzainburuari eta euskaltzainburuordeari zegokien hemen egotea, baina kasualitatez, gaur Bordelera joan behar izan dute, APORLOC-ek, hots, okzitaniar hizkuntzaren Akademia sortzeko ekitaldira gonbidaturik. Behialako zenbait hagiografok zioenez, antzinako saindu batzuek ba omen zuten nonahikotasuna deritzon bertutea, hots, aldi berean bi lekutan izateko ahalmen inbidiagarria, tokibikotasuna ere deitua. Ordea, jada ez gara orduko denbora zaharretan bizi, eta, agi denez, ez Andres Urrutia dugu saindu ez Aurelia Arkotxa sainda ere, zoritxarrez. Beraz, barkatuko didazue, haien ordeztasunaren idazkaria naiz eta- hemen agertzeko ausartzia.

Behin, orain dela berrogei urte inguru, Gabriel Aresti eta biok Baionako karriketatik genbiltzan, eta. halako batean Bilboko poeta, etxe baten horman atxikirik zegoen plaka bati begira gelditu zen. Hura Agosti Xahoren omenez jarria zela konturatzean, honela esan zidan irriño batez: “-Begira, Xabier: hementxe du Xahok bere kalea. Bere garaian, idazle madarikatua izan zen bera ere, baina azkenean, haren omenez, kale bati jarri diote haren izena. Beraz, besteok ere ez dugu esperantza galdu behar!”.

Eta hori zioen, Gabriel Arestiri gustatzen zitzaizkion, bere burua ere poeta madarikatutzat aurkeztea, maiz egia desegokiak errateagatik. Horregatik, ordainez, txalo eta laudorioen lekuan, sarritan gaitzespen eta kritika latzak jasotzen zituen; Agosti Xahok bezala, nonbait. Arestiren kasuan behintzat, aitortu behar da bere egiak aurkezteko maneran, maiz, bereziki zirikatzaile eta sumingarria izaten zela, horrela sortarazten zuen eskandaluarekin, beharbada, irakurriagoa izateko esperantzaz.

Agosti Xahoren izkribuetan, ordea, ez da eskuarki irakurlearekiko probokazio hori agertzen, eta eskandalua, izatekotan, batik bat, zerabiltzan gaietan zetzan, haien laikotasunean, garai hartan gure artean aski ezohikoa zena. Izan ere, hemeretzigarren mendearen hasieran jaio zen zuberotar idazle hau, oso nabarmen agertu zuen bere burua, sozialista, errepublikar eta iraultzaile erradikal gisa. Eta jarrera ideologiko berritzaile hori ez zetorren beti bat garai hartako tradiziozko pentsaera nagusiarekin, hots, euskaldun fededun delakoarekin. Baina ezkerreko ikusmoldearekin ere, Xahok, aldi berean, bere burua beti euskaldun erakusten zuen inolako lotsarik gabe, eta avant le mot izan arren, abertzaletzat ere bai. Horrexegatik karlistadak, euskaldunen nazio-askatasunerako borrokatzat jotzen zituen.

Garai hartan Frantzia zen, Europa osoan, Gobernu Errepublikarra zuen Estatu bakarra, Frantses Iraultzaren ondorioz lorturiko eskubide formal askorekin, eta Elizaren legeria eta Estatuarena banaturik zeuden. Xahok biziki balioesten zuen aurrerapauso hori, arlo askotan gizateria osoarentzako eredu bilakatu zena. Izan ere, erlijioa eta politika,

arimaren salbazioa eta hiritarren askatasuna, elkarrengandik bereizteko urrats hura erabakigarria gertatu zen, Europan eta Amerikan laster imitatua, eta gaur egun ere horren atzetik dabilta hirugarren munduko jende asko, musulman estatuetan bereziki.

Aitzindariak, ordea, beti ordaindu behar izan dituzte oso kario beren ausartzia eta urrutikusmena. Zorionez, denborak justizia egiten ere badaki, eta gaurko euskaldunok mirespenez eta esker onez dakusagu Atharratzeko semearen jarrera aurrerazalea. Euskal historia, ohiturak, poesia-kantuak, mitologia etab. ere berreskuratzen eta lantzen saiatu zen. Jakina, euskara eta euskal historia goraiatze aldera, maiz gehiegikeria batzuk ere erran zituen. Ez ordea, erdal eskoletan azken mendeotan atertu gabe irakatsi dizkigutenak baino potoloagoak. Eta helburuetan ere ezberdinak dira: Agostik, txarrean ere, gure iragana apaintzen zuen, euskaldunok geure jatorriaz harro senti gintzen, eta hemengo euskal erro eta nortasunari atxikitze asmoz moldatzen zituen bereak; eskolak, ordea, sarriegitan gu ahalkez deserrotzeko eta gure hizkuntza eta kultura gal genitzan zituen bere istorioak apailatzen.

Javier Diaz Noci irakasleak A. Xaho pertsonaia erromantiko peto-petotzat jotzen du (idazle, kazetari, bidaiari, politikari erradikal, kanpoko hizkuntza eta kulturen zalea). Jon Juaristik, ordea, “ordainduriko agente bikoitz-tzat dauka”. Halere, Juaristi laguna dudan arren, honetan behintzat, zalantzarik gabe Diaz Nociren iritzikoa nauzue, ezin pentsa baitezaket, bere herriaren eta hizkuntzaren alde hain luzaro eta kartsuki lan egindako pertsona hura inoren saripeko morroitzat jo daitekeenik. Garaiko aje, uste xeble eta fantasiak gorabehera, A. Xahok leku ongi merezia dauka gure nazioaren historian, bai eta euskaldunon buru-bihotzetan ere. Bere azti-begi zoliarekin etorkizun hobearen iragarle izan genuen, jada gero eta argiago zirriborratzen ari zaigun errealitatearena. Alegiazko Aitor zahar baten asmatzaile izandako hura, gaur milaka Aitor berrien aitaponteko bilakatua zaigu.

Eta pertsonaia honen bizitzan eta lanean sakontzeko, ondoren, Jean Haritschelhar euskaltzaina eta Patri Urkizu euskaltzain urgazlea mintzatuko zaizkigu.

Xabier Kintana Urkiaga